

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

*Koldo Zubizarreta Lasagabaster
Txiron*

*Aretxabaleta,
Gipuzkoa
(1949)*

Aurkibidea



Biografia



Durana kalean jaioa, guraso biak Aretxabaletakoak zituen eta biak baserritarrek (ama Aozaratzakoa eta aita Izurietakoa). Dekorazio denda batean egin du lana erretiroa hartu arte. Hitanoari buruzko elkarrizketa egin genion, Anjel Akizu lagunarekin batera. Koldok kalean ikasi zuen hika eta bereziki koadrillakoekin egiten du. Xabier anaia ere elkarrizketatuta dago.

Zintak

ARE-089

- **Proiektua:** Aretxabaletan hika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Altolagirre Etxeberria, Maddi - Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2024-10-28
- **Iraupena:** 76 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Altolagirre Etxeberria, Maddi

Pasarteak

1. Hika non entzun eta nola ikasi zuen

- **Erref:** ARE-089/005
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:01:32. **Bukatu:** 00:03:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Gurasoekin zuka egin izan du beti, baita anai-arreben artean ere. Familiako zirkulu handiago batean, aldiz, hitanoa entzuten zuen. Ikasi, aldiz, kalean ikasi zuen, eta han hasi zen erabiltzen, gehienek hala egiten zuten eta. Euskaraz hitz egiten zutenek erabiltzen zuten batez ere. Baina, gerraosteko garaia zela kontuan hartuz, gaztelania asko eta, beraz, hitanorik ez.

2. Zenbat urterekin hasi zen hika hitz egiten

- **Erref:** ARE-089/006
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:03:38. **Bukatu:** 00:04:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Kuadrilako ohitura aldaketek ekarri zuten bai euskararen erabilera handiagotzea eta baita hikaren erabilera ere.

3. Emakumezkoei hika ez

- **Erref:** ARE-089/007
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:04:26. **Bukatu:** 00:05:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Orokorrean emakumezkoei zuka egin izan die beti. Ez etzekitelako, emakumezkoekin hitz egiteko ohiturarik ez zegoelako baizik.

4. Errespetu falta eta hitanoa

- **Erref:** ARE-089/008
- **Iraupena:** 0:00:24. **Hasi:** 00:05:08. **Bukatu:** 00:05:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Maila baxuagoko hizkuntzatzat hartu izan da hitanoa. Horregatik lotu izan da errespetu faltarekin.

5. Norekin egiten du hika gaur egun?

- **Erref:** ARE-089/009
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:05:32. **Bukatu:** 00:06:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Gaur egun kuadrilako guztiekin egiten du hika. Eta kuadrilakoak ez diren gizonezkoekin ere bai. Emakumeekin, aldiz, oso gutxirekin.

6. Hika, elkarrizketa sinpleak

- **Erref:** ARE-089/010
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:06:15. **Bukatu:** 00:07:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumezkoekin erraztasun handiagoz egiten du zuka. Baina noka eta toka bietan antzeko moldatzen da. Toka egiten duen jendearekin dituen elkarriketak sinpleak dira, kuadrilakoekin dituenak adibidez. Aditz formen aldetik ere, beraz, errazagoak dira.

7. Aretxabaletan entzuten al da hika?

- **Erref:** ARE-089/013
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:08:14. **Bukatu:** 00:09:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Beraien adinekoen artean gizonezkoek erabiltzen dute hitanoa. Gazteagoen artean, aldiz, ez. Dendan lan egin izan du beti eta bezeroaren arabera egin izan du hika.

8. Hitanoaren gainbehera

- **Erref:** ARE-089/033
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:18:58. **Bukatu:** 00:19:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Euskara » Tratamenduak

Laburpena:

Gazteagoen artean hitanoa galtzen dabilela argi ikus omen daiteke. Galera orokorra dela uste dute, nahiz eta emakumezkoena lehenago eman zen.

9. Baserrian hobeto mantendu da hitanoa

- **Erref:** ARE-089/034
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:19:54. **Bukatu:** 00:21:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Baserritarrak ziren batez ere hika erabiltzen zutenak. Klean gazteleraren eragin handiagoea zegoen eta, beraz, euskara zein hika gutxiago entzun eta erabiltzen ziren. Baserrietan hobeto mantendu da euskara, baita bere forma guztiak ere, hitanoa barne.

10. Hika erabiltzaile gazteena herrian?

- **Erref:** ARE-089/035
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:21:28. **Bukatu:** 00:22:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hitanoz egiten duen pertsona gazteena zein den esatea zaila zaie, ez baitute hortan arretarik jartzen. Hala ere, bai ikusten dituzte euskaraz oso ondo hitz egiten duten kanpotarrak eta pozgarria zaie benetan.

11. Umeetan zituzten hizkuntza erabilerak

- **Erref:** ARE-089/036
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:22:28. **Bukatu:** 00:25:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Frankismoa dela eta, beraiek gaztetan gaztelania asko erabiltzen zuten. Eskolatik irtendakoan, aldiz, euskaraz. Anekdotak ere badituzte.

12. Baserritarren konplejuak

- **Erref:** ARE-089/037
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:25:22. **Bukatu:** 00:27:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserrria vs. Kalea

Laburpena:

Baserritarrak bigarren mailako gisa hartzen zituzten.

13. Emakumeen konplejuak

- **Erref:** ARE-089/038
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:27:02. **Bukatu:** 00:27:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Baserritarrek konplejuak zituzten, emakumeek batez ere. Koldok badu horri buruzko adibide bat.

14. Baserritarren egunerokotasuna eskolan

- **Erref:** ARE-089/039
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:27:42. **Bukatu:** 00:30:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Baserritarrek ere bazituzten ikasgelan. Herrira iristeko bideak ez ziren batere errazak. Baserritarrek lanean zeuden bitartean herrikoak jolasean egoten ziren.

15. Appa Hi!

- **Erref:** ARE-089/045
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:37:56. **Bukatu:** 00:38:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Appa hi! aplikazioaren promo bideorako erabilgarria den zatia.

16. Mugikorraren erabilera

- **Erref:** ARE-089/047
- **Iraupena:** 0:05:53. **Hasi:** 00:38:38. **Bukatu:** 00:44:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak
- Ohiturak eta bizimodua

Laburpena:

Lehen nola komunikatzen ziren azaltzen dute.

17. Galdu diren ohiturak

- **Erref:** ARE-089/048
- **Iraupena:** 0:05:27. **Hasi:** 00:44:31. **Bukatu:** 00:49:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua

- Lanbideak » Antzinako lanbideak

Laburpena:

'Kafe konpletua' hartzea galdu da, dantzak, lanbideak...

18. Jolasak eta gaiztakeriak

- **Erref:** ARE-089/050
- **Iraupena:** 0:04:44. **Hasi:** 00:50:10. **Bukatu:** 00:54:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Gau beltza dela eta ere bazituzten ohitura eta jolasak. Neskak beldurtzera joaten ziren. Umetan jolas pila bat zituzten lagunen artean. Zoritxarrez, galtzen joan direla diote.

19. Galdu diren lanbide desberdinak

- **Erref:** ARE-089/051
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:54:54. **Bukatu:** 00:58:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak

Laburpena:

Barkilleroa ezin aipatu gabe utzi, ezta gasolinaren arduraduna ere. Kotxearen erabilera ere asko aldatu da: kamioiak eta banatzaileak soilik zebiltzan lehen esne zein barazki banatzaileak, esaterako. Barazkiak eta frutak dendan baino familiako ortuan izaten zituzten.

20. Herriko istorio bat: Otazu familia

- **Erref:** ARE-089/057
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 01:02:13. **Bukatu:** 01:04:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Bainuetxea elegantea zen eta mantentzen da orduko eraikina. Koldok badu istorio bat gaur udaletxea den eraikinari buruz: Otazu familian, Aretxabaletako Arratabe familiagaz ezkondua, 3 haur izan zituzten, eta anekdota barregarri bat kontatzen du. Herri mailan jendea harritu egiten zen familia aberats hura ikusirik.

21. Eskola garaiko istorioak

- **Erref:** ARE-089/059
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 01:05:04. **Bukatu:** 01:06:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

'Montañas nevadas' abestia abesten zuten eskolan. Disziplina gogorra zen, makilaren erabilera ere aipatzen dute. Ume-umetan maistrak izaten zituzten; behin handiago eginda, Jose Luisez gogoratzen da Koldo. Gizon handia eta mantsoa, baita zakarra ere. Anjel irakaslea normalagoa zela ere oroitzen dute eta, azkenik, "Maripaz" ere badakarte gogora, bide batez herriko trena gogoratuz.

22. Herriko trena

- **Erref:** ARE-089/060
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 01:06:21. **Bukatu:** 01:09:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Trenarekin ere aritzen ziren gaiztokeriatan. Trena zen orduko erreferentzia handietako bat, ekarri zituen aldaketez gain, orduaren erreferentzia ere bazelako. Tren geltokiaz gogoratuz, gaur egungo autobus geltoki kaskarrekin ez daude batere gustora. Gasteizko autobus elektrikoari eta tranbiari buruz ere hitz egiten dute.

23. Garbigailua

- **Erref:** ARE-089/061
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 01:09:12. **Bukatu:** 01:12:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Labadora asmakuntza garrantzitsua izan zen. Baita butanoa ere. Opari gisa eman zion Koldoren aitak amari. Anjelen etxeko lehen etxetresna elektrikoa izan zen.

24. Kuadrilaren garrantzia

- **Erref:** ARE-089/063
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 01:13:12. **Bukatu:** 01:16:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia

Laburpena:

Bi kintak osatzen dute beraien kuadrila, 30 bat inguruko lan taldea. Estatutuak eta guzti zituzten garai batean. kuadrilek lagunetako bat lan gabe gelditzean nola lagundu jakiteko, esaterako.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com